

BERRIGARA

18 zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, apirilak 26



Maiatzaren 1a
Langilearen
eguna



Lana:
Nahikoa lan
lana lortzen
(Koadernillo berezia)



Drogak:
Amaitu beharreko
bidaia faltsua




Jaiak:
Labegaraletan eta
Elorregin

ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak

Harruriaga 1, Behea, Tfnoa: 76 58 16 BERGARA



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE

GORKA RETOLAZA

Aurreko GALDE DEBALDEKO erantzun zuzena ELGETA, EIBAR, SORALUZE, ELGOIBAR, ANTZUOLA, AZKOITIA, OÑATI, ARRASATE eta ELORRIO genituen. Esan beharra dago Mankomunitadeko mapak nahastea sortu duela eta horregatik ZUMARRAGA jarri digutenak ere ontzat eman ditugu.

ASKASIBAR JATETXEKO SARIA Gorka Retolazak irabazi du. Argazki honetan ikusten dugu gure saritua ASKASIBAR JATETXEAN saria jasotzen.

ZORIONAK irabazleari!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste hontako galderari!



**HERRAN
ETXEA**

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3, Tfnoa: 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publikitate eta herpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizaralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkorobereibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina
eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketak: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunik.



26 OSTIRALA

• **Erakusketa:** Etxe Aundi
Jatetxean, Oñatin, Mari Paz
Alustizaren pintura erakus-
keta maiatzak 3ra arte.

• **Kontzertuak:**

• Bergaran, Txibisto dantz-
lekuan, *Hard-Ons* eta *Anes-
tesia*. Gaueko 11etan.

• **Txontxongiloak:**

• San Martin Plaza: *Kuku-
biltxo* taldearekin "*Jalgi hadi
dantzara*" 7etan.

• **Novedades:** *Deliciosa Ro-
yala* taldeak "*A donde*" obra
eskainiko du. 8.30etan.

• **Gaztetxean:** *Hugo e Ines*
taldearen "*Ritorno Buiro*"
12etan.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Guallar (San Anton)
Gauetz: Ruiz (Arrasaten).

27 LARUNBATA

• **Pilota partiduak:** Frontoi-
an, 4.30etan hasita, honako
neurketa hauek ikusteko au-
kera: *Satrustegi-Iturza /
Soroa III - Urra; Etxaniz -
Errandonea / Ariznaba-
rreta-Errasti; eta ihardu-
naldiarekin bukatzeko Ga-
bilondo-Mendia / Irazola-*

Unsain.

-**Kontzertuak:**

• Labegarrietan, 10.30etan,
*Baldin Bada, Kemando Rue-
das* eta *Julio Kageta*.

• Arrasaten, Amaia antzoki-
an, 10.30etan, *The Barely
Works*.

• Elgoibarreko Gaztetxean,
Los Clavos eta *Mala Fama*
taldeak, 10.30etan.

• **Txontxongiloak:**

• San Martin plaza: *Kukurra*
taldea "*Kaleko animazioa*"
obrarekin, eta *Hugo e Ines*,
"*Bajo las historias del som-
brero*" lanarekin. 7etan.

• **Novedades:** *L'Estaquirot*
taldearen "*Biotic*", 8.30etan.

• **Gaztetxean:** 12etan, *Tan-
xarina* taldearen "*Titiricir-
cus*" obra.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Estella (Matxiategi)
Gauetz: Morales (Arrasaten).

28 IGANDEA

• **Txontxongiloak:**

• **Gaztetxean:** 12etan, *Zoo-
trop* taldearen "*En Groc*"
obra.

• **Novedades:** 8.30etan, *Taun
Taunen* "*Bi Kate*".

• San Martin plaza: Eguerdi-
ko 12etan, *Los Titiriteros*
taldearen "*El Bandido Cu-
caracha*".

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Estella (Matxiategi)
Gauetz: Azkoaga (Arrasaten).

29 ASTELEHENA

• **Zinea:** "Señalado por la
muerte", 7.30etan.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Mozos (San Pedro)
Gauetz: Español (Arrasaten).

30 ASTEARTEA

• **Zinea:** "Señalado por la
muerte", 10.30etan.

• **Kontzertua:** Labegaria-
tan, gaueko 12etan, *Kepa
Junkeraren* emanaldia.

• **Goardiako farmazia:**

Egunez: Camacho (Bidekur)
Gauetz: Corcuera (Arrasate).

1 ASTEAZKENA

• **Zinea:** "Señalado por la
muerte"; 5etan, 7.30etan eta
10.15etan.

• **Goardiako farmazia:**

Puy (Barrenkalen).

2 OSTEGUNA

• **Zinea:** "Señalado por la
muerte", 7.30etan.


• **Goardiako farmazia:**

Guallar (San Antonion)



BERGARA BOLTSAK

- Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab..
- Denetarikoa konfekzio industrialia
- Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaiz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

ANDIZY

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

**Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Kiñu

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

**Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

Tabernen ordutegiak direla eta:



Gutun honen zergatia, aspalditik buruan bueltaka daukadan ideia bat luzatzea da.

Jakina da asteburuetan askotxo garena tabernarik taberna ibiltzen garen bergararrak. Goizaldeko 3rak aldera, batzuk etxeko bideari ekingo diote; baina beste askok ez, lagunartean jarraitzeko gogotan gelditzen gara... eta dena itxita! Egoerarik ez a proposenean, hor abiatzen gara, kotxea hartu eta Txibisto, Tartufo edota batek daki nora.

Kasurik onenean ez da ezer gertatuko; baina ordu horietan, eta edanda... sarritan sufritu behar izaten dira istripuen ondorioak.

Bale alkoholemia-kontrolak hor daudela; baina horri errepresio kutsua nabari diot nik. Ez litzateke errazagoa izango, eta proposamen bat besterik ez da, herri-barruko bizpahiru tabernari beranduago arte zabaltzeko baimena ematea? Aurrez insonorizazio neurri egokiak hartuz gero, ez dago zertan inor molestatu beharrik, eta bide batez, ostiral eta larunbateko gautxoriok ez genuke kotxea hartu beharrik izango.

Azken finean, astean zehar lan eta lan egin ondoren, astebukaeran arriskurik gabeko festa egiteko aukera izatea ere eskubide bat bait da.

Koldo F.



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA


Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldedia 76 56 41
Igerilekuak 76 20 51
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49

Tiira ba!

Josu Okina



❑ Nazioarteko Txontxongiloak

Helduentzako Txontxongiloen Nazioarteko I. Era-kustaldia ostegunean hasi bazen ere, asteburuan hainbat antzezlan ikusteko aukera izango dugu.

Gogoratu Novedades aretoan (8.30etan), Gaztetxean (gauerdiko 12etan) eta San Martin plazan (kaleko emalndiak 7ak inguruan), Euskal Herriatik, Madriletik, Galiziatik, Italiatik, Kataluñatik eta Aragoitik etorritako txontxongilo-taldeak ikusteko aukera duzuela. Obra guztiak jarraitu nahi dituenak, 1.000 pzta.ko bonoa eros dezake.

Albiste honekin lotuta, aipatu astebukaeran ez dela zine emanaldirik egongo Novedades aretoan.

❑ Antzuolako Udalaren aurrekontua

Gerrikoa estutu beharko du aurtengoan Antzuolako Udalak. Azken Osoko Bilkuran, 114.836.276 pzta.ko aurrekontua onartu zuten zinegotziek, iazkoa baino zertxobait txikiagoa.

Antzuolarekin jarraituz, Udaleko Euskera Batzordeak "Oporrak Euskaraz" kanpainarekin segitzeko asmoa adierazi du. Uztailaren 8tik 18ra bitartean burutuko da, eta dagoeneko zabalik dago begirale izan nahi dutenek izena emateko epea.

❑ Argazki Rallye-a gaur gauean

Pol-Pol Argazki Taldeak argazki rallye-a burutuko du ostiral honetan. Parte hartu nahi dutenek, gaueko 10etan, San Pedroko arkupetan dute zita.



✓ Begirale ikastaroa

Maiatzaren 6an bukatuko da *Txintxerriña* Elkarteak

Bergaran antolatuko duen begirale ikastaroan izena emateko epea. Deba Garaiko 18 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte bertan. Kostua, 18.000 pzta.

Saioak euskaraz izango dira, eta bukatzerakoan Diputazioak emandako astialdiko begirale titulua eskuratu daiteke.

Ikastaroa maiatzaren 11n hasiko da; hilabete horretan eta ekainean, asteburuko egonaldietan gauzatuko dira saioak.

Udako etenaldiaren ondoren, urrian jarraituko dute.

Besteak beste, udaleku irekiak, hizkuntzarekiko lana, begiralea eta begirale taldea, astialdiko elementuak, programazioa, edota errekurtoak (jolasak, musika...) aztertuko dituzte. Informazio gehiago. 76 44 46 tfnoa.n.

Emakumearen II. Ihardunaldiak

Bergarako Udalak, Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak eta Emakunde Elkarteak antolatuta, aste osoan zehar burutu dira Bergaran *Emakumearen II. Ihardunaldiak*.

Osasuna, etxeko langileen eskubideak, hezkuntza edota lanaren mundua jorratu dituzte egunotako hitzaldietan.

Asteartean, *Educando a Rita* filmearen emanaldia egin zuten Kultur Etxean, eta antzerkiari ere bere txokoa gorde diote. Hor izan genituen ostegunean *Neskarriadak* taldekoak Mariaren Lagundian, *El Angel Caido* obrarekin



ALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER " PRODUCTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

□ **Elgetan**

Maiatzaren 5era arte luzatuko da Elgetan Udalak antolatutako duen Hamabostaldi Kulturalean, erakusketak, hitzaldiak, ipuin eta poemak, eta musika eta dantza saioak antolatuko dira.

Euskal dantzak aparteko garrantzia izango du apirilaren 30ean egingo den hitzaldian eta maiatzaren 3an Urrestillako Sahatsan Dantza Taldeak burutuko duen emanaldian.

□ **Euskara ikasten**

Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" kanpainaren barruan, bertan parte hartu nahi duten ikasleek maiatzaren 31ra arte izango dute zabalik izena emateko epea. Horretarako, jo Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailera.

□ **Pinturak ikusgai**

Maiatzaren 23ra arte, Mari Paz Alustiza margolari bergararrak 18 kuadro izango ditu ikusgai Oñatiko Etxe Aundin.

□ **Ikusi eta ikasi**

Gaur, ostirala, arratsaldeko 8etan, Why Noi antzerki talde ingelesaren antzezpena izango dugu ikusgai Mariaren Lagundian. Ikusi... eta ikasi! Obra ingeles hutsean emango bait dute.

□ **Hard-core gaua**

Tahures Zurdosek maiatzaren 11n Txibiston emango duen kontzertuaren zain gauden bitartean, ostiral honetarako, hilak 26, *Hard Ous* taldearen bisita iragarri digute San Juango dantza lekuan. Kontzertua 11tan hasiko da, eta iparramerikarrekin batera *Anestesia* koak plazaratuko dira.

□ **Kultur gestorea**

Dagoeneko amaitu dira Kultur Jestorearen plaza betetzeko azterketak. Gogoratu azken proba bi arrasatear eta Jone Larrañaga heldu zirela. Hautatuaren izena datorren astean emango da ezagutzera.



Jai usaia auzoetan

Maiatzaren 1a Labegarietan

Labegarietan larunbatean ekingo diete ospakizunei. 4retan, XV. Mus Txapelketa Zabala taberman; 5etan mendiko-bizikletan irteera; 7etan, kukaña, buruhaundi, hankaluze, eta txokolatada ederra; gaueko 11tan musika jaialdia, *Baldin Bada*, *Julio Kageta* eta *Kemando Ruedas* taldeekin; goizaldeko 4retan galtzontzilo eta kulero lasterketa; eta 5etan, azkenik, berakatz-sopa zutik dirautenentzat.

Igandean, 11.30etan Marrazki Lehiaketa; 12etan meza; 12.45etan *Musika Eskolako*en kontzertua; eta 4etan VII. Tute Txapelketa Zabala taberman.

Asteartean, Telleria eta Anatx bertsolariek alaitutako auzo-afarian elkartuko dira, 9etan. Gauerdian *Kepa*, *Zabaleta* eta *Imanolekin* erromeria; eta goizaldeko 4retan, porrusalda gau-txori guztientzat.

Maiatzaren 1ean, asteazkenean, bukatuko dira aurtengo festak. 10.30etan Labegarietako XXIX. Txirrindulari Saria jokatu da; 12etan Meza Nagusia *Alai Taldea* abesbatzarekin; eta ondoren, salda, dantzariak, sokatira, eta Saralegi anaiek eskainitako harri-jasotze eta aizkora saioak.

Mundu guztia asetzeko ainako programa.

San Prudentzio jaiak Elorregin

Ostiralean, Mus Txapelketa jokatu da Elorregiko Elkartean bertako bazkideen artean. Larunbatean, 8etan meza, eta ondoren, Elkartean, soinujoleek eta Segurola txiste-kontalariak alaitutako auzo-afaria.

Igandean, San Prudentzio eguna, 11tako Meza Nagusia elkartuko dira. Ondoren, Zezenak eta Pottokak *Tavesako* kanpan, trikitrixa-giroan. Eta hori bai, txorixo ederra hurbiltzen direnentzat. On egin!

Nahikari

RICARDO A. ELIZALDEren

PINTURA ERAKUSKETA

Aurrera jarraituko duen bidaia baten arrasto eta apunteak direla esango nuke...

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

ZABALA

JATETXEA - OSTATUA

Labegarieta Tfnoa: 76 20 07 BERGARA

ELADIO OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2, Tfnoa: 76 54 60 BERGARA



Drogomenpekotasuna Amaitu beharreko bidaia faltsua

Julio eta Javi, toxikomano ohiak.
Rosa, Pilar eta Amparo, etxean
drogomenpekotasunaren arazoa bizi izan
duten hiru emakume, hiru ama.
Gela batean elkartu gara eurekin.
Giroan, urduritasuna somatzen da.
Esperientzia gogorra bizitzea tokatu zaie, eta
ez da erraza egun beltz haiek ezezagun baten
aurrean gogoratzea, herriaren aurrean
aurkeztea.

Julio eta Javik hogeitapiku urte dituzte gaur egun. Bi bergarar hauek *Gizakia Helburu* delakoan murgildu dira drogaren mundua ahaztu asmoz.

Gaztetatik ezagutu zuten rollo hori; eta inkonszienteki, geroz eta gehiago hartzeari ekin.

Geroz eta gehiago...

Onartzen dute errua eurena dela. Ados. Baina arazoa ez da hain erraza. Gure gizarteak funtzionatzen duen moduan... kompetitibitatea, benetako lagunen falta... egun batean droga ezagutu, eta etsipen sentsazio

horretatik ihes egiteko irtenbidea dela iruditzen zaizu.

Denboraren poderioz ikasten da, ordea, bidaia faltsu bat besterik ez dela; dena gezurra.

"Gukez genekien zertan ari ginen. Gaur egun informazio hobe dago, jendeak badaki drogak zer puntutaraino izorrratu dezakeen pertsona. Baina orduan ez, mundu ezezaguna zen, imajinatu ere ez genuen egiten horren garesti ordaindu beharko genukeen egiten ari ginena".

Gauregun informazio hobe dagoela, eta halere belaunaldi berrietan ere askotxo dira zulo berdinean erortzen ari direnak.

"Argi ibili daitezela. Errealitatea hemen dago, eguneroan, eta aurpegi eman behar zaio. Droga gezur handi bat da gero! Une batez gauzak po-

litagoak direla sinestarazten dizu, baina ihesaldi horretatik esnatzerakoan sekulako muturrekoa hartzen da, ziur".

Zulo beltza, gaztearen bila-kaera normal eta naturala seko moztzen duena.

"Drogak hartzea norbere buruari kalte egitea da, insatisfaziorik haundienera eramango zaituen bidea. Bizitza zoragarria izan daiteke aurre egiten jakinez gero, eta pena merezi du une gazi-goxo horiek disfrutatzen saiatzea. Ebaditu beharra daukazunean, aurrera, egin ezazu ihes, baina modu baikorrean, modu positiboan; inoiz ez zeure burua eta zeure ingurukoak engainatuz".

Gure gizarteak funtzionatzen duen moduan...

kompetitibitatea, benetako lagunen falta... egun batean droga ezagutu eta etsipen sentsazio horretatik ihes egiteko irtenbidea dela iruditzen zaizu.

Denboraren poderioz ikasten da bidaia faltsu bat besterik ez dela; dena gezurra.

Gauzak aldatu beharra

Javi eta Julio kexu dira, ez datoz bat eskoletan aplikatzen den hezkuntza sistemarekin.

Ez digute erakutsi bizitza nola gozatzen den, benetako baloreak non dauden.

Elkarren kontrako lehia hezi gaituzte, materialismo hu-

FESA

Garraioak

Herrian eta Estatuan zehar mota guztietako garraioak.

Tfnoa: 76 21 38 - 76 42 22 BERGARA

Zatoia
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ZAKET

Gizon eta gazteentzako
JANTZIDENDA
Irizar Ibilbidea 3

tsean, beharbada gizarteak berak ere horrela funtzionatzen duelako.

"Ez dugu ikasi gure inguruarekin kritiko onak izaten, sistema dagoenetan onartzen baizik. Aurrez ezarritako erroak inposatzen dizkigute, eta ez bazaizkizu gustatzen, aldatetaren alde borrokatu beharrean frustrazio izugarri baten erortzeko arriskua egoten da".

Irtetzeko ordua

Egunak joan, egunak etorri... konturatu orduko soluzio zaila duen arazoak irentsi egin zaitu.

Drogaren mundua ahaztu nahi, baina ez da erraza.

☐ **"Une batez gauzak politagoak direla sinestarazten dizu, baina ihesaldi horretatik esnatzerakoan sekulako muturrekoa hartzen da, ziur".**

Askotan pentsatzen duzu amets-gaiztoa bukatu egin behar dela. Baina kalera jeitsi, betiko lagunak ikusi, beste tomada bat egin eta bizitza larroxa kolorekoa bihurtzen da berriro.

"Lehenago edo beranduz, zerbait egiteko ordua iritsi dela ulertzen duzu. Edo sendatzeko benetako ahalegi-



Droga nik? Alde hemendik!!

nak egiten dituzu, edo bestela akabo!"

Bata espetxera eraman zuten. Bestea lanetik bota.

Bai. Zulotik irtetzeko ordua zen.

Familiak gogor

Pilar, Amparo eta Rosak isiltasunean entzun dituzte orainarteko galde-erantzunak, arretaz.

Baina hiru emakume hauek ere badute zeresanik. Gogorra da ama batentzat bere semea zapuzten ari dela ikustea.

"Familiak ezin du entzungor egin. Drogaren arazo bizi duen gazteak mundu hori ahaztu nahi du, baina behar-

bada ez dauka indarririk".

Konturatu semea ez dabilela bide onetik, baina zaila da arazoak zein puntutaraino harrapatu duen onartzea.

"Saiatzen zara berarekin hitzegiten, baina dena ukatzen dizu; ezetz, ez dela hainbeste-rainokoa...engainatu egiten zaituzte, artista hutsak dira horretan, eta gainera zuk hori entzutea nahi duzunez..."

Okerreko bidea, dena tapatzea. Denborarekin arazoak areagotzea baizik ez da lortzen.

"Zerbait susmatu orduko familiak presio gogorra egin behar du. Ez daukate borondaterik, eta edozer egin beharra dago erreakzionatu dezaten; edozer! Baita semea etxe-

tik bota ere, bestela jai dago! Dena eginda ematen badiozu, adarra jotzen dizu".

Lehenengo eta funtsezko pausua dugu, beraz, begiak ireki eta arazoari aurre egitea.

☐ **"Zerbait susmatu orduko familiak presio gogorra egin behar du. Ez daukate borondaterik, eta edozer egin beharra dago erreakzionatu dezaten; edozer! Baita semea etxetik bota ere, bestela jai dago! Dena eginda ematen badiozu, adarra jotzen dizu."**

Toxikomanoak laguntza behar du. Baina ez protekzionismoa, baizik eta indarra, irtenbidearen bila eramango duen bultzada.

"Semea horrela ikusita desesperatu egiten zara; inpernua zaudela dirudi, eta errazena burua makurtzea da. Baina hori ez da modua; egoerafortzatut beharra dago: edo sendatzera joan, edo kalera. Orduan erreakzionatzen dute!"

Gizakia Helburu

Behin Gizakia Helburu delakora joatea erabakiz gero, gauzak hobetzen hasten dira. Kale-bizitza alde batera uzten dute, eta gutxika-gutxika normaltasunera itzuli.

"Pentsa, goxotu egiten dira. Eurekin hitzegi dezakezu,

Beheko Taberna
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

AGIRREBEÑA
Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29 BERGARA

Siaska
Dena zure haurarentzako
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39 BERGARA

egun osoa oihuka ibili beharrean... eta hori lortzea bakarrik izugarritzko aurrerapausua iruditzen zaizu”.

Ama baten hitzak dira.

Julio eta Javik badakite zertan datzan proiektu hori, bertan ibiliak ditugu biak.

“Baliogarria da, besterik ez bada ere zure buruaren alde borrokatzen duzulako. Gogoz joan behar da, eta probetxugarri iruditzen zaizkizun gauzak onartu”.

Argi dago hasten diren denari ez direla sendatzen; baina

❑ Aukera eman behar zaie. Aukera. Benetan saiatzen ari denari ezin zaiolako hori ukatu.

asko eta asko bai; eta garrantzitsua da hori.

“Pena da proiektuari buruz horren informazio gutxi egotea. Jende gehienak abade-komentu bat dela uste du, eta hori ez da horrela. Laguntzeko prest dauden pertsonak aurkitzen dituzu. Zurekin hitzegiten dute, sarri, eta aspalditik galduta zeneuzkan baloreak errekuuperatzen laguntzen dizute. Ez dakit, betidanik faltan sentitu ditudan lagun-minak topatu ditut han, zutaz arduratzen direnak, ez kalean bezala...”.

Direnak direla, ez omen da erraza plana jarraitzea. Kanean egoismoa eta konfidantza-eza besterik aurkitzen ez denean, ohitu, eta ezaugarri horiek eguneroko jokabide bihurtzen dira. Gero, proiektuan murgil-



Herri osoaren lana, drogomenpekotasunari aurre egitea

du eta jendearekiko harremanak hainbeste aldatzen direnean...

“Bai, gogorra da. Gogorragoa da, ordea, kalean jarraitzea, bakarrik, zure beldur guztiak heroinarekin itozten...”.

Normaltasunera itzuli

Komunitatean, talde lanak izugarri laguntzen dio toxikomanoari. Poliki-poliki, bere buruarengan galdutako konfidantza berreskuratzen du.

Baina komunitate horrek, nolabaiteko adikzioa ere sortzen dio. Hain gustora egoten da kaletik aparte...

Eta ukazina da eguneroko bizimodura itzultzeak beldur boladak ere pizten dituela.

“Bueltatzean denetik aur-

kitzen duzu, jende ona eta ez hain ona. Argi daukazu ezin zarela aintzinako lagun haiekin berriro elkartu; baina bestalde, zaila ere bada berriak egitea. Sarritan galduta sentitzen zara, oso bakarrik, hutsik. Eta ez baduzu laister giro apropos bat aurkitzen, monotonia arriskutsu batean eror zitezke, beldurra ematen duen monotonia arriskutsuan”.

Kalera itzuli, eta dena aldatu behar.

Egoera latza. Gainditu beharreko egoera, asetuko zaituzten pertsonak aurkitzea.

“Benetako lagunak edukitzea gaur egun mundu guztiak sentitzen duen beharra da zailtzarik gabe. Baina gure kasuan, agian premia hori larriagoa da. Ez dugu kupidarik eskatzen, aurrerantza aterako

gaituen bultzadaxoa baizik. Eta noski, guk geuk ere badaukagu horretan zeresanik; ezin gara itxoiten gelditu, biktima moduan jokatu. Gure barruan dauzkagun alde positiboak kaleratzen ikasi behar dugu inguruko jendea erakartzeko”.

Amparo, Rosa eta Pilarrek lanaren gaia aipatuko dizute, insistentziatz.

“Badakigu gaur egun lana aurkitzea ez dela erraza inorentzat. Eskatzen duguna zera da, ez ditzatela kalean utzi aurriritzi edo prejuizioen eraginez. Aukera eman behar zaie benetan aldatu direla erakus dezaten”.

Aukera eman.

Aukera.

Benetan saiatzen ari denari ezin zaiolako hori ukatu.

GIARTZU

(M. Isabel Hurtado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekuuperazioa
Errekuuperagailu elektrikoa
Korronte kapazitatiboak

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Bonif Laskurain 3, Etxabea Tfnoa: 76 35 71 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41

INEM; langabeziari aurre egiteko bulegoa

Eskaitzen al du INEMek lanik? Herritar askoren, batez ere langabetuen kezka. Sarritan geure buruari egin diogun galdera. Erantzuna aurkitu asmoz, Arrasateko INEMeko Bulegora hurbildu gara. Han hiru bergararrek egiten dute lan: Igone Diaz de Gereñu, Daniel Aiastui eta Maria Elena Mondragonek. Azkenak, soziologian lizentziatua den 31 urteko neska honek eman dizkigu azalpenak.

INEMen helburu nagusia lana eskeintzea izanik, betetzen al du helburua?

- Hemen lana eskeini baino, egiten duguna erregistro lana da batez ere. Gainera, jende asko eta lan gutxi dagoenez, enpresek ez dute Enplegu Bulegora deitzen, nahi duten langilea beren kabuz kontratatzen bait dute. Eskatzekotan, arkitecto tekniko edo horrelakoak eskatzen dituzte, ez dagoena.


- Hortaz, zein da zuen lana?

- Lana bilatzen ari direnak legez erregistratzea. Estadistiketan langabeziari ari garenean, legez erregistratutako langabetuez hitzegiten dugu. Benetako paroa haundiagoa da. Denontzako lana egongo balitz, zoragarria izango litzateke denontzako. Bat apuntatu eta berehala topatuko genioke lanpostua.

- Zein motatako jendea etortzen da hona?

- Denetarikoa. Itxi duen enpresa bateko gerentetik hasi eta garbitzaileraino. Dena den, emakumezko gehiago dago. Gizonezko langabetuen kopurua ia bikoiztu egiten dute emakume langabetuek.

- Lan merkatua nola dagoen kontutan hartuta, eskeintzen diren kontratu gehienak behin behinekoak izango dira...



M. Elena, Igone eta Daniel, hiru bergarar INEMen.

- Bai. Enpresek langile bat betirako ez dute ia sekula kontratatzen. Bestalde langile batek gutxitan egiten ditu hiru urte lanpostu batean, eta betetzen baditu ere, ez diete kontratu fijoak egiten. Enpresaria oso beldurtia da.

- Zein motatako lanak eskeintzen dira batez ere?

- Horri erantzutea ez oso erraza, analisiarik egiteko laborategi bat daukagun arren, horrelakorik egiteko astirik egoten ez delako. Kualifikaziorik gabeko langileak eskatzen dira batez ere. Garai batean metalgintzan asko kolokatu ziren, LH2-koak. Gero administrari

ugari dauzkagu apuntatuta.

- Eskaera-eskeintza bialantza, lehenengoren aldekoa izango da...

- Horrela da. Dana dala, merkatua oso mugikorra da, lan fijoak eskeintzen ez direnez, kontratuak behin behinekoak izatean, mugikortasun handia ematen da. Hilero bostehun kontratu inguru egiten dira. INEMek, bestalde, ez du ezer egiten kontratu fijoak bultzatzeko. Laguntza ekonomikoak badaude, baina kasu konkretu batzuetarako soilik: elbarrituentzat, 45 urtetik gorakoentzat...

- Ikasleak langabetuak al

dira?

- Ez. Ikasleak dira, Enplegu Bulegoan apuntatu daitezkeen arren.

Ikasten ari diren bitartean ez dira langabetuztat hartzen, ez dira estatistiketan langabetu bezala agertzen.

- Antzinatek aukera gehiago ematen ditu?

- Gero eta gutxiago. Lan-tegi batetik eskeintza bat datorrigunean, ordenadorera jo eta, Enplegu Bulegoan denbora gehien apuntaturik daramatzatenak aukeratzen dira. Baina horiek, askotan ikasketak aspaldi bukatuta izaten dituzte eta ez dira izaten lanpostuetarako egokienak. Horregatik antiguedadea gero eta gutxiago hartuko da kontutan. Azterketetako onenak aukeratu dira hemendik aurrera.

- Enplegu Institutoa Madrileko Gobernuaren menpe dago. Horrek ez du problemarik sortzen?

Bai. Nahasketa handiak sortzen dira, kontratueterako edo eta autoenplegurako laguntzak ematerakoan, esaterako, INEM-en erizpideak eta Jaurilaritzarenak ez dira berdinak izaten. Konpetentziak direla eta nahasketa ugari sortzen dira. Hobe litzateke, INEM Jaurilaritzara transferitua egongo balitz...



LARRAÑAGA

AUTOGIDARIEN ESKOLA


Artekale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA

Emakumea eta lana

Baina-baina... Nork esaten du emakumeak diskriminatuta daudela?



Estadistikak begiratu baino ez dago, norbaiti gustoko ez bazaio ere.

Estadistikek, inkestetarik, zentsuetatik, etab. etatik ateratzen diren datu horiek, errealtatearen zati bat baino ez dute agertzen. Ba, hara, estadistiketatik atera ditugun zenbait datu, gure egoeraren berri ematen dutenak:

Lan egiteko edadean dauden emakumeen % 36'9ak du lanerako aukera. Bitartean, edade bereko gizonen artean % 67'7ak dauka lanen bat. Emakume gehienak, lana dutenen % 77'7ak, lau lanbide-taldetan sartu ditzakegu:

- %29'4a zerbitzu pertsonalak, etxeko lanak edo ostalaritza.
- %19'5a administrari laguntzaileak.
- %15'5a komertziantek eta saltzaileak.
- %13'3a OHOk irakasle eta enfermerak.

Egia da lan munduan sartu den emakume multzoa haunditu dela baina hori besteko egia da etxean egin beharreko lanak egitea tokatzen zaigula kanpoan ere. Argi eta garbia da, beraz, sekua dela-ta dagoen diskriminazioa. Lan batzuk gizonarentzat eta beste batzuk, emakumeentzat, eta gainera emakumeentzat horiek

bakarrik.

Teorian, emakumeok ere edozein lanbidetarako aukera daukagu, baina errealtatean ez da hori ikusten, igeltsero, elektrizista, arotz... eta halako lanbideetarako oso ondo prestatuta dauden emakumeak atzera botatzen dira sarritan, *Hemen gizonak behar ditugu* entzunda.

Egia da datu hauek ez direla estadistiketan jasotzen, baina horixe da gizarte honek eskaintzen digun errealtate ez-kutua.

Eta badira aipatu beharreko beste zer batzu ere: langabezia esate baterako. Lanean ari garen emakumeak gutxiengoa izanik ere, gero eta gehiago dira langabezia gelditzen direnak; eta ezkutuko lanak, *trabajo sumergido* delakoa..., gizon bakoitzeko 4 emakume ari dira halako lanetan, segurtate sozialik gabe, eskubiderik gabe, gutxieneko soldatarik

gabe, eta jabeak agindutako ordu guztiak lan eginaz.

Eta estadistiketan azaltzen den *población inactiva* delakoa...!, etxekoandre diren %60a ezaktibo edo geldoa deitzea ere gogor xamarra da.

Jakina, bakoitzak erabaki behar du zer izan nahi duen: etxekoandre, dendari..., baina beste lanbideetatik ere ezin gaituzte baztertu emakume izateagatik. Horixe da lortu behar duguna.

Eta orain arte lortutakoak ere emakumeon elkartasun eta borrokarekin lortu direnez, lan horretan jarraituko dugu diskriminazio eta marginazioak gainditu eta ate berriak irekiz.

BIZKAIKO EMAKUMEEN ASANBLADA

(Emakumearen II. Ihardunaldietan emandako hitzalditik)

Emakume langileari



Euskal kulturaren emakumea

ez da izan gauza gutxi azkenaldiko aurrerakuntzak ateak dizkio itxi bere ekimen eta langintzak isildu eta gaitzetsi bide hortatik ezin gintezke urrutiegi iritsi

Lantegietan oinarritzkoa

ta etxearen zimendu nahiz eta sarri inguru honek meritu gehiegi kendu nabaria zan hutsune hori zure itzalak bete du segi aurrera zu bait zaitugu gizarte honen eredu

Bergarako Bertso Eskola

EXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6 Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

Gustora egindako lana



Jose Gorrotxategi
Sagarpeko sukaldean nagusi

Joxe Gorrotxategi, 63 urte, azkenengo aldiz Zerrajeran lanean ibili ondoren, duela bost urte jubilatatu zen. Bizitzaren zati haundi bat burdinen artean eman badu ere, asti aldiko ordu mordoxka Sagarpe Elkarteko sukaldean pasatu du. Berrogei urte bere lagunaren ahoak gozarazten, gustora egiten duen lana. Batean arrain zopa, bestean makailoa..., baina bere plater gogokoena bildots erreka. Urtero 50 bildots inguru prestatzen ditu. "Eibarko Azitainen lehenengo aldiz bildotsak erretzen ikusi nituen eta poliki-poliki geu ere hortan hasi ginen". Hortik datorkio Joxeri sukaldaritzarako zaletasuna: "Soziedadetan andrak sukaldian sartzeik ez

dauke ta, beti gizonok eñ bihar izaten dou. Hau preparam, bestia ikusi, gero liburuak be onak dare oin ta.... dudia dagonian zeoze begiratzenda".

Gastronomia lehiaketa askotan parte hartu izan du. Duela urte batzuk ETBk antolatzen zuen Zopa Haundi saioan Sagarpe Elkartearen izenean bigarren postua eskuratu zuen. Bergarako jaietan lehen egiten zen lehiaketan ere sarritan gertatu da garraile bere lagun Jabier Garate Orue-rekin batera.

Sagarpeko sukaldean ordu ugari sartu baditu ere, bere etxeokan, emaztea da erregina. Noizean behin zerbeitetan laguntzen badio ere, amantalik ez du sekula, etxean jarri.



Kristina Larrañaga
Zainak musikaz bai

Ez dira asko izango gustatzen zaien lana bizibide dutenak

Kristina Larrañaga 25 urteko bergararra horietako bat dugu. Hamar urterekin ekin zion musika ikasteari; 14 egin zituenean, Bilboko Musika Kontserbatorioan kitarra ikasketak hasi eta sei kurtso egin ondoren, erdi mailako kitarra titulua lortu zuen duela bi urte.

Orain Bilbora abiatzen da asteazkenero, Musikaren Historia Kontserbatorioan ikastera, "gustatzen zaidalako joaten naiz ez daukat titulo beharrik".

Honez gain, Eskoriatzako Magisteritza Eskolan burutu zituten ikasketak: "musika atseginago dut. Solfeoa, ki-

tarra,..., irakastea asko gustatzen zait, eta haurrei baldin bada hobe oraindik".

Kristinak urteak daramatza Bergarako Musika Eskolan irakasle. Iaz, Orfeoia zuzentzeko ardura hartu zuen. "Gabonetako kontzertua prestatzeko asmoarekin hartu nuen eta Gabon ostean, beste urte baterako Orfeoian zuzendari lanak betetzeko konpromezua hartu nuen. Erresponsabilitatea handia da, bainan merezi du".

Aste buruetan, bere anaiak eta arreba bezala, etxeko negozioan egiten du lan, gozogintzan, "hura gogorra goa da. Nahiago dut musika irakastea, gustorago sentitzen naiz, etxean diru gehiago irabazten den arren".

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ARRANO



TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Sindikatuak, Maiatzaren 1aren atarian

Langileak dira maiatzaren 1aren protagonistak; hori dela eta, sindikatuen eritzia jaso nahi izan dugu, Elkarte hauek bait dira langileriaren ordezkari naturalak.

Hiru puntu jarri dizkiegu mahal gainean:

1. Zer da Maiatzaren 1a?
2. Zertarako hainbeste sindikatu?
3. Nolakoak dira gaur sindikatuen arteko harremanak?



Lanpostu fijoak lortu

1. Maiatzaren 1a, lehenik eta behin, lanaren jaia da; langileok ospatzen dugun eguna. Festa eta erreindikazio eguna.

2. Gu Estatu mailan lan egiten duten sindikatuetatik bereizten gara, euskaldunak gara eta gure lan esparrua Euskal Herria da. Sindikatua izateaz gain konpromezu nazional bat daukagu. Beraz beste sindikatuetatik bereizten gara, abertzaleak izan eta gure inguruarekin konpromezu bat izatean.

3. Nahiko onak dira, normalak esango genuke. Nahiz eta gai batzuetan ikuspuntu ezberdinak egon, uste dugu gaur egun sindikatuen arteko harremanak zuzenak direla.



Langileok defenda dezagun geurea

1. Guretzat Maiatzaren Lehena beti izan da borroka egun bat eta aurten ere, jaia alde batera utzita, horrela izango da. Gainera, bigarren eraldakuntza industrialak gain gainean dugunez, langileok arduratu behar dugu, kontzientzia bat. Birmoldaketa honek berriz ere lanpostuen galera ekarriko bait du.

2. Nahiz eta sindikatu guztiek langileen interesen alde borrokatu, eguneroko praktika sindikalak bereizten gaitu beste sindikatuetatik.

ELA, UGT eta CCOO-en praktika sindikalak ez da langileen alde jokatzearrena, baizik eta langileak alde batera utzi eta patronalarekin mila txantxullo negoziatu.

3. ELA, UGT eta CCOO-ekin ez ditugu harreman onak, ez dutelako langileen parte hartzea bultzatzen, burokratikoak dira, hortik gure ezadostasunak.



Enpleguaren aldeko proposamenak sindikala

1. Maiatzaren lehenaren erreindikazio eguna da. Lan egoerari buruzko erreindikazioak gogorarazteko eguna.

2. Pertsona guztiak berdinak ez garela, ez dugula berdin pentsatzen.

kontutan hartuta normala iruditzen zaigu aukera ezberdinak egotea, sindikatu ezberdinak egotea, bakoitzak erabaki dezan bere gustora. Pertsona bat hurbilago egon daiteke sindikatu batetik, beste batetik baino.

3. Azken urteetan sindikatuen arteko harremanak asko hobetu dira. Sindikatu bakoitzak bere ideiak eta interesak plantetazeko modu ezberdinak izan arren, hainbat gaitan batasuna lortzen da. Garai batetik hona, UGTrekin akordioa askotara heldu gara eta Maiatzaren Lehena ere batera ospatuko dugu.



Aurrerapen sozialaren alde

1. UGTrentzat, langile guztientzat bezalaxe, Maiatzaren 1a lanaren jaia da. Langileriak bere eskubideak erreindikatzeko eguna da. Langileen jaia.

2. Egia da sindikatu gehiegi daudela. Azken finean sindikatu bakoitzaren manifestuak irakurtzean, guztiek antzeko erreindikazioak planteatzen dituzte. LAB-ek, sindikatu berezia denez, erreindikazio sozio-politikoak planteatzen ditu, eta horrek ematen diho nolabaiteko berezitasuna. Sindikatu pare bat soilik egotea, egokiagoa izango litzateke langileentzat.

3. Euskal Herrian, ELA, CCOO eta geu, ondo konpontzen garela esan genezake, hainbat gaitan akordioak lortu bait ditugu. LAB-ekin harremanak ez dira hain onak. Estatu mailan, ELA-rekin izan genituen tirabira batzuk hauteskunde sindikalen inguruan, baina tira...



Gaur, bihar, beti ixildu...azkenean mutu

1. Maiatzaren lehenaren, jai eguna baino, erreindikazio eguna izan denez beti, aurten ere horrela izango da. Langileriak oraindik eskuratzeko dituen gaitak erreindikatzeko eguna.

2.- Argi dago hainbeste sindikatu egoteak patronalari mesede egiten diola. Diktadura garaian sindikatu bakar bat zegoenez askatasun sindikalaren alde borrokatzen zen. Gaur egun sindikatu gehienek askatasun sindikalak, zatiketa sindikalak bezala ulertzen dute, eta ez dira gauza bera. Guretzat hobe izango litzateke askatasun sindikal bat, batasun sindikal baten barruan.

3.- Orokorrean txarrak direla esan genezake. ESK-CUIS-ek bi motatako sindikatuak bereizten ditu: erreformistak eta ezkerreko sindikatu kontsekuentek. Gu bigarren honetan kokatzen gara.

ANTIA

HARATEGIA

URDATEGIA

Txahal, idi, txerri
bildots, untxi
baserriko oilaskoak

Matsiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA



MAKAILO

Makailo **ETXEA**
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**Ona al da langilearentzat hainbeste
sindikatu egotea?**



Xabier Azkarate

30 urte

Bai. Nahiz eta antzeko gauzak
defenditu, modu desberdinean egiten
dute. Eta hori ona da, gizaki guztiak
ere desberdinak garelako.



M. Dolores Arizabaleta

49 urte

Iruditzen zait hobe litzatekeela
sindikatu gutxiago egon eta denak
elkartuta joatea.



M. Eugenia Igarza

42 urte

Ondo dago; baina gutxiago izango
balira, beharbada indar gehiago
edukiko lukete arazoei aurre egiteko.



Xabier Eguren

29 urte.

Ez dakit; agian hobe gutxiago
izango balira, horrela batasun
haundiagoa egongo litzateke
langileen artean.

anezka

Udaberrirako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25 BERGARA

FERNANDEZ



OIHAL PUSKAK
OIHALAK


Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22

San Antonio 3 Ibargarai 2

BERGARA

AE

**ELKORO
ANTENAK**



. TB Satellite bidez

. Telebanaketa

ARRASATE

Tfnoa: 79 18 86

✓ **1942an jaiopak**

1942an jaiotako berrogeitamalau bergarar elkartu ziren larunbat gauean lagun-arteko afarian. 7.30etan hildakoengatik meza entzun eta gero, hor abiatu ziren *Antxoni* jatetxera, triapak asetu asmoz.



✓ **1949ko kintoak**

Argazkiko hogeitahiru bergarar hauek 1949an egin zuten soldaduzka, eta joan zen igandean lagun-arteko bazkarian biltzea erabaki zuten. Eguerdian meza entzun, eta txikiteoa bukatu eta gero, 2.30ak inguruan Lasai Toki Elkartera joan ziren jatera. Umore ona sobera garai haietako adar-jotzeak gogoratzerakoan...



✓ **TB pribatuak**

Heldu dira dagoeneko TB pribatuak Bergarara. Karakateko errepetidorea inauguratu berri, handik San Migelera bidaltzen da seinaleo, eta San Migeletik zuzen gure etxeko antenara. Aurrerantzean, beraz, ohizko lau kanalez gain, *Antena 3*, *Tele 5*, eta hilean 3.000 pzta. balio duen *Canal Plus* ikusteko aukera izango dugu.



Zertan dihardute ba?

GARBINE ERDOZIA



58 urteko donostiarra, duela bi urtetik Mariaren Lagundia Ikastolako Zuzendaria, Erroman egin berri duten Bilkura Orokorrean Lagundiko General-orde aukeratu dute datozen 6 urteetarako.

ENEKO OREGI




37 urte, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Arabako Ordezkariz izendatu dute. Sarrikon burutu zituen ekonomia ikasketak. Legebiltzarreko itzultzaile, Hezkuntza Sailean aurrez ere aritua, IVAPen zebilen lanean kargu berrirako deitu dutenean.



**LASA
JATETXEA**

Bkurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA



**KON DE
PANADEROKUA**
Burdiñate 1
BERGARA

Umore onian

Behin plaentxiar bi
Eibarrera jua ziren eta
taberna batean sartu



ziren. Banderilak eskatu
eta eskuan hartu batek,
urreratu burua hari eta
putz egiten. Tabernariak:
- Ez, etxaok beroa.
- Eztok horregatik,
hautsa kentziarren
jiarduat.

Behin plaentxiako

Roman Garmendia

bandia Aretxabaletara
jua zan, eta bitarte
guztiak, betiko moduan,
eraten betetzen eben.
Egin eben hangoekin be
bazkari haundi bat, eta
bandakoak eran eta eran.
Biharamunian diagar ein
eben Aretxabaletatikan
preguntez ia bandakoak
ondo eran, eta bai, danak
ondo erela.

Aretxabaletan itxuria
bazkarian parte hartu
eben danak gaixorik
eren, tripetatik minak eta
berakuak, jandakua
gaizki ei egoen eta,
bainan bandakuak
hainbeste eran eben ze
konturatu be ez ziren
egin haretaz. Danak
ondo.

Ezkioko Amabirjina (1):



Antonia eta Andres Bereziartua

1931ko ekainaren 30ean (Erre-
publika etorri berri), Ezkioko bi
haur, Antonia Bereziartua 11 urte-
koa eta bere anai Andres 7koa, be-
hiekin etxera, Anduaga baserrira
zetozen arratsaldea ganau-zain pasa
ondoren.

Arbola batzuen ondotik pasatu
zirenean atzera begiratu zuten eta
hor non ikusten duten Ama Birjina-
ren irudia arbolen gainean. Zuriz
jantzita zegoen eta izarrezko koro-
iarekin. Oso ederra da baina aurpegi
triste du. Agur egiten die haurrei eta desagertu egiten da poliki
poliki.

Etxera heltzeaz bat kontatu zuten ikusitakoa eta berehala
zabaldu zen notizia. Milaka pertsona hasi zen etortzen Euskal
Herri osotik, baita Cataluniatik eta beste parte batzuetatik ere,
trenez, kotxez, autobusez, oinez... Lourdes berria geneukan
etxean!

Handik hilabetera Mateo Mujika, Gipuzkoako gotzaiak, gezu-
rrezkotzat jo zituen agerpenak eta galerazi egin zituen zeremo-
niak eta postalen salmenta. Baina ordurako suak indarra hartua
zuen eta milaka bisitariz gain dozenaka ziren bidenteak: batzuk
Doloretako Amabirjina ikusten zuten, Inmakulada, San Migel,
deabrua, Hautxo Jesus... beste batzuk. Ikuslerik famatuena
Frantzisko Goikoetxea, "Ataungo mutila". Bidenteak trantzean
jartzen ziren, edo konortea galtzen zuten, begiak zabal zabalik
hildakoak bezala, edo hysteriko, edo...

Amabirjina odolez blaitutako ezpata batekin ikusi ohi zuten,
laster gerra beldurgarri bat etorriko zela iragarritz.

Amabirjinarekin izaten zituzten elkarrizketak euskaraz izan
ohi ziren. Kontuan izatekoa da baserri giroko jendea mobilizatu
zela gehienbat.

J. M. Elexpuru

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Igandeko finalean, Retegi ala Galarza txapeldun?



Jokin Etxaniz
Retegik irabaziko du, 22-13.

Aitor Oregi
Retegik irabaziko du, 22-15.

Joseba Oregi
Retegi, 22-14.

Javi (Infernukua)
Retegi irabazle, 22-12.

Javi Laskurain (Mekolalde)
Retegik irabaziko du, 22-16.

Jose Ramon Madinabeltia
Galarza ez da 10era iritsiko.

Reyes Korkostegi
Argi dago, Retegi, 22-14.

Ignazio Etxaniz
Aurten Galarza txapeldun.

Don Pedro
Galarzak bere merituz 10 ere ez. Bestearen hutsekin akaso...



J. M. Zezeagaren eritzia

Nere ustez Retegi izango dugu txapeldun berriro. Faktore asko dauzka bere alde. Hamar aldiz irabazi du, eta horrek konfiantza emango dio. Hor daude apustuak ere, Jendeak Julianen alde jokatu du dirua, eta beraz, igandean animorik gehienak berarentzat izango dira. Anoetako frontoia hobeto doakio Retegiri Galarzari baino. Bai, seguruenik Erasungoa izango dugu Txapeldun. Baina igandean, telebistaren aurrean jarri eta partidua bukatzen denean Txapela Galarzaren buruan ikusi nahiko nuke.

Txirrindularitza
Asteazkenean, Labegaraietako jaien egitarauaren barruan, XXIX. Txirrindulari Saria jokatu da. Goizeko 10.30etan ekingo diote probari.

J. Arietaleaniz
Oiartzunen korritutako mendi-bizikleta proban 2. postua eskuratu zuen, Paco Salaren atzetik. Proba, *Open de Españarako* baliogarria zen.

Futboleko larri
Liga bukatzeko bost ihardunaldi falta direnean, Futbol Taldea maila galtzeko arrisku larrian dugu. 19. postuan, 22 puntuz, derrigorrezkoa du gelditzen zaizkion neurketa guztiak irabaztea. Ez du lan erraza.

Xabier Azkarate
Astore Taldeko Astzuolarrak, 3. postua eskuratu zuen Frantziako Bedux herrian jokatuako duatloi proban.



✓ **Mongatxurra, Labegaraietako futbito txapelketan irabazle**

Hamasei talde apuntatu ziren, joan den larunbatean Labegaraietan jokatuako 12 orduko Futbito Txapelketan. Lau kanporaketa jokatu eta gero, Bergarako *Mongatxurra* eta Antzuolako *Hols* ekipoak heldu ziren finalera. Indarrak parekatuta, eta partidua banako emaitzarekin bukatu zen. Penaltyetan irabazi zuten gainean ikusten dituzuen *Mongatxurra*ko bergarrek. Euren jaso zuten 24.000 pzta.ko saria eta trofeoa; antzuolarrak 12.000 pzta.rekin konformatu behar izan ziren.

IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNeko MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Raizabal
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



Mondragoeko Zerrajerak behar zituen materialak eduki ahal izateko sortu zen mende honen hasieran Altos Hornos Bergaran.

Hogei langile izan ei ziren 1901ean Ubitta baserritik kanala egiten hasi zirenak. Langile guztiak, erbestekoak, testil fabrikek kondizio hori jarri ziotelako enpresa berriari. Itxuraz testilak orduan jornal bajutxoa izan eta beldurra omen zeukaten Altos Hornosi bergararrak hartzen utziz gero, langileak hara joango ote ziren, han gehiago kobratzen zelako. Hasierako langile guzti haien buru Domingo Aiastui zen.

Hemen dakargun argazkia 1921ekoa da eta orain Altos Hornosen zubia dagoen ertzean aterata dago, Agirrebeña taberna dagoen tokian. Artean ez zegoen halako etxerik. Gainkaldean ageri diren baserriak Azkarruntz azpikoa eta Azkarruntz gainekoa dira.

Erretratuan agertzen direnetatik gutxi baino ez ditugu ezagutzen.

Hona hemen beren izenak:

Ezkerretik eskumara: Baztarreko neskatxoa, Pilar Gastañares; hurrengo neska, Julia Gastañares eta besoetan daukan umea Teodoro Gastañares; hurrengoa ezezaguna; hurrengoa, Domingo Arietaleaniz (Bizkai Txiki). Erdiko emakumea, ondoko tabernako (Pedron taberna) neskamea, langileei banaztan ardoa eramatera joandakoa. Atzean agertzen den txapeldun altua, Luzio Sarasketa.

Eskumatik ezkerrera: Aranzabal, Gaztelu futbolistaren aitajauna; Patxi Gastañares; ezezaguna, eta Luzio Fdez. de Retana.

Estepan Plazaola

Argazkia eta berriemailea : Angelita Gastañares

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ERREKI

ERRETEGIA

Txitxarro eta saiheski jana
astebukaeretan

Fraiskozuri Eparantza

Tfnoa: 76 38 51

BERGARA



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Iri-
zar pasealekuan. Deitu
761708 Tfnoa.
- Pisu salgai edo alo-
kairuan. Polita eta amue-
blatua. Deitu 762916
Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Pisu behar dut alki-
lerran. Tfnoa: 764255.
- Pisu behar dut alo-
kairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du-
gu Mizpildin pisua osatze-
ko. 765837.
- Pisu salgai Koldo
Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Lokal komertziala al-
kilatzen da bolun. Tfnoa:
763797.

- Pisu salgai Olan,
konpondua eta amuebla-
tua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak sal-
gai Martokuan. Tamainu
ezberdinetakoak. 761078.
- Pisu salgai; garaje
eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi
dugu Bergaran.763431.
- Pisu edo buhardilla
hartuko genuke alokairu-
an. 764735.

LANA

- Neska bat behar da
umea zaintzeko. 763449,
1.30etatik 3rak arte, edo
8retatik aurrera.
- Andra edo neska eus-
kalduna behar da bi haur

zaindu eta etxeko lanak egi-
teko. 765141.

DENETARIK

- Ihauterietan galdu-
tako argazki kamara ba-
daukazu. Deitu: 763270.
Sarituko da.
- IPUIN dendaren albo-
ko lokala alokatzen da.
Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Soinu bat salgai. Deitu
764195era.
- 28 urteko pinudia sal-
gai. Terreno eta guzti.76-
1201.
- Bizikleta 10.000 pztan
salgai. Kuadroa Moncayo
eta piezak Zeus. 761161.

• SANSUI 7900 ampli-
fikadorea salgai, plato se-
miautomatiko eta bi soinu
kaja oparizat. 20.000 pza
dena. 762852.

• Salgai ski eta bizi-
kleta eramangailua; bi lo-
karri, eta erretenarekin
762852.

• Egoera onean dagoen
R-6 GTL bat erosiko nuke.
770940 (lanorduetan).

• Karrerako bizikleta
polita eta arina salgai. Ez
da garestia. 763269.

• *Reflecta Diamator AF*
diapositiba proiektorea
salgai. 762230 gaueko 9re-
tatik aurrera.

• Kolore biziko MBK
mendiko-bizikleta berri-
berria salgai. 765528.

Hildakoak

Domingo Beitia Ugarte
79 urte . apirilak 20an.

BERRIGARA


Eskatu eta etxean

76 03 97

BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA

TURISMOAK, KAMIOIAK E.A.

Bolu Tfnoa: 764404 BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA
SELF SERVICE-a

Barrenkale 31, Tfnoa: 76 20 02



YAZKI

UME

Irizar 3
Tfnoa: 76 16 54

GAZTE

Ibargarai 8
Tfnoa: 76 54 73

Orain, mutilentzako erropak ere eskaintzen ditugu Ibargarai 8an.